

LAINOA (Izengoitia: Zirimiri)

MENDI arteko haran txiki galdu eta hotz hura ia ezezaguna zen munduarentzat. Ibaia izena apenas merezi zuen errekatxo estuak haranaren estutasuna errepikatzen zuen. Sigi-saga eginez ekialdeko basoetatik barna mendebalderantz abiatzen zen ur ibilbidea. Korronte garbia, hotza, mendietako lezeetan bildurikoa eta zuhaitz erroen artean jaioa. Horregatik, errekatxoak zeraman urak enbor erorien ezpalak, sustrai eta hosto marroi-gorrien usainak eta zaporeak zituen eta ez Geografia Instituto Nagusiko gazte prestu arduratsuak esan bezala: *“urak harrien arteko hutsuneak zeharkatzean doinuak sortzen ditu eta doinu-uhinak ibaiari lotu behar dizkiogu, ez basoari”*. Bakartasunez itota ihes egin aurreko halakoxe mezua utzi zien haraneko biztanleei, halako gizarajo inozoa!

Errekatxoa herriko zubi zaharraren azpitik igarotzen zen. Harrizko zubiak Urigoiti eta Larralde auzuneak uztartzen zituen ezkontza eternalean, basoaren oihartzunak korrontearen zurrubiloetan lekuko izanik. Haiexek ziren herriko bi buruak: Urigoitin eskola eta eliza, batek daki zein estilotan eraikia, hiru kaletan pilatutako etxebizitzak eta zubiaren muturra edo amaiera. Larralde auzoan, lau kale motzetako etxe tartean ostira-lero antolatzen zen azoka gunea eta berriz zubiaren amaiera edo muturra, ez da kasu.

Urigoitiarrek gehiago zuten ofizioz lurrari ekitea eta larraldetarrek zaletasun naba-riagoa zioten abereak gobernatzeari. Denak kasik inoiz haranetik kanpo ateratako biztanleak. Salbuespenak salbuespen, XVI. mendean Larrakoetxeako Antonio ospetsuak abereak, auzoa, herria eta harana atzean utzi eta korsario entzutetsua bihurtu zen, frantsesek gatibu hartu eta burua kupida gabe moztu zioten eguna arte. Edo 1793ko urtean, Uribarrenako On Miguel sendagileak Frantzia aldean iraultzak zuen harrabotsa igarri eta gaixoak, auzoa, herria eta harana atzean utzi eta Parisera joan *L'Encyclopédie* entzutetsuaren sortzaileak ezagutu nahian. Espioitzat hartu zuten frantsesek eta burua moztu, auzoko kideek *Encyclopédie* izeneko hori herri izena ala Pariseko antzokietan

arrakastatsu antzeztutako opereta edo komeria ote zen eztabaidatzen zuten tartean. Eskarmentu horietatik jaiota, “*frantsesekin burua galtzea*“ esamolde ezaguna bihurtu zen haranean norbaiten ideia txoroiei kunplimendua emanaz lortuko ziren etekinek ez zutela buru gainean igandeetako sonbrerurik jartzeko tokirik aurkituko-edo, aipatzeko.

Harana zeharkatzen zuen bidexka bakarrak ur korrontea jarraitzen zuen. Bi sarrera edo bi irteera beraz, bata mendebaldean eta bestea ekialdean. Ipar eta hegoaldeetan zeuden mendi basatiek –zinez ez garaiegiak– ez zuten inoiz sartu eta irtetzeko bide zidorrik izan lar maldapatsuak zirelako eta harresi sendoek bezala haranaren estutasuna inguratzen zutelako. Ibaixoaren aldameneko lur bidexka urri zapaldua nahikoa zuten biztanleek eguneroko zereginetan hango edo hemengo soro edo larreetara joan-etorriak burutzeko. Ez zitzairen inoiz otu bide zidor berririk irekitzerik, zertarako?

Negua gogorra zen haranean. Elurra ugari eta haizeak bide frankua zuen harana alde batetik bestera errekorritzeko txistu amaigabea behin eta berriro joz zurezko ate eta sabaietako teila gorrien artean. Etxeetako tximinietatik gora egur errearen ke usaintsua ateratzen zen haizearekin talka egin arte eta elkar jotze honetatik geruza berdez apaindutako hodei marroiak sortzen ziren zeruan. Zurezko hodeiok zuritu egiten ziren hotzarekin uztartuz eta narraska bezala ari ziren bazter batetik bestera. Azkenik, hodei ernalduak erditzerako teilatu ilun gorrietan pausatzen ziren eta elur maluta sortu berriak erori, lur barnetik tiraka izango balituzte bezala. Indartsu itsasten zen elurra zoru hotzean, amoranteak ohekide denaren besarkaketa amorosa hautsi nahi ez duen tankeran. Ilunabarretan behe-lainoa erortzen zen doinurik gabe herriko teilatuetatik mendi biluzien gainetatik malda behera legez eta iluntze gristua nagusitzen zen. Goizalban lainoak oraindik irauten zuen eta sarritan eguerdia arte ortziak ez zuen garbitzen.

Udaberriko lehen egunekin Pertiako buhameak hurbiltzen ziren azoka egunetara. Ez zuten inoiz hutsik egin, zaratatsu eta arropa bizi arrotzez jantzirik agertzen ziren

azoka erdian, nagusi eta umeen arreta lortuz. Nola ez al zuten lortuko munduaren beste aldetik etorriak izanik? Pandero kolpeek eta emakumeen irrintziek erakartzen zituzten azokan zeuden guztien begiradak. Aitonek eta birraitonek –hauen aiton-amonek ere– etorri berrien diosalak eta deiak ongi ezagutzen zituzten. Udaberriko txoriak omen eta txori hegalaria migratzaileen antzera bizpahiru egunetako salerosketak eta trukaketak burutu ondoren ekialdeko bidexkatik desagertzen ziren musika eta kantuen artean.

BATZUEK urtarrilaren bigarren astean, besteek hilaren amaieran. Buhameen etorrera baino lehenago, edo joan eta aste pare bat geroxeago. Beste aldekoek, ez bata ez bestea, Laino-Handia Done Fridolino bezperan heldu zela ziurtatzen zuten. Afera da –eta honetan denek baieztu zuten erretore jaunaren iritzia– Laino-Handia berezia eta ezberdina zela ezagutzen zituzten haraneko behe-lainoekin aldarrikatuz. Astunegia zela, lar pisutsuegia, potoloegia eta zaila izango zuela halakorik altxatzea komentatzen zuen erretore jaun jakintsuak inguruan begi irekiz eta aho itxiz zituen auzokideekin.

Aipatutako berezitasunez gain, lainoaren kolorea ere ezohizkoa zen, ez zen gris motela edo zurixkatu gristua den ohiko beste lainoen bezalakoa. Bazuen beti berdin mantentzeko indarra, esnea bezain zurixkatua, esneak errekatxoko uretan dituen formen bezalakoa. Ez, ez zen horrela: egur umela sutean erretzen denean ateratzen den kearen sustantzia berarekin egina zela esan zitekeen. Ez, ez zen horrela: begi zahartuek mendi gainetako elurrak arakatzen ari direneko lausotasunaren kolore definitu gabeaz jantzirik zen lainoa. Ez, ez zen horrela: oskol finkoaren barnean gorputz haragi gabeak –eta beraz, espiritu hutsak– lurralde gainean irauten zuenaren balizko erreflexua legez. Ez, ez zen horrela ere. Ortziaren sabeletik jaioa izan arren, garaietara igo ezinik indarge mugitzen diren hodeien antzera, bere alferrikako nahia haran estuan kokatu zuen Lainoak.

Kasu da, Laino-Handiak ez zuela haranetik joateko asmorik sehaska-haurrak amaren titietako esnea ez uzteko egiten zituen ahaleginak bezalaxe. Izaki iritsi berria

benetan eroso aurkitzen zen, urrutiko paisaietatik etorritako hegaztiak kabi ezaguna aurkitzen duten gisan. Eta herriko jendeak, egunak pasa ahala, kale zaharretan edo basetxeen arteko larreetan ezer gutxi ikusteari eta iritsitako bisitariak sortzen zizkien beste arazo batzuei aurre egin beharren izan ziren.

Zubitik hamar pausora egonik ezinezkoa zen errekatxoaren ertzak ongi definitzea eta pauso berri luzeekin batera oinak ur hotzetan sartzen zituzten sarri. Etxeetan goiko sabaiko leihotik ezin zuten ezagutu atarian ate joka nor zen. Erretoreak elizako atetik ez zuten ikusten teiltatu gorritik hiru metro eskas gora eraikita zen ezkilen dorrea. Umeak herriko plazara joaten ziren jolastera eta itzultzerakoan galdurik zeuden herriak zituen Larraldeko lau kale berdintsu haietan –edo hiru kale, Urigoitiko kasuan– norberaren etxea aurkitu ezinik. Dena den, ia itsuturik ziren edadeko aiton-amonek ez zuten, ordea, gauza nabariegirik igarri eta ez zela hainbesterako marmarkatzen zieten etxekoei.

Artzainek arazo larriak zituzten Larraldeko zelaietan artaldeak biltzeko unean. Ardien beekak zituzten deigarri, animalien letoizko ezkilen talan-talanak heltzen ziren entzumenetara, baina dena zen alferrikako lana: ehun metro eskumaldera zeudelakoan, kale egin eta berriz entzun behar artaldearen deiak. Berrehun metro ezkerraldean, kale hemen ere, ardirik gabe bueltatzen ziren artzain engainatuak. Lainoaren esne apaleko kolore ezan endredatu egiten ziren doinuak, animalienak eta artzain trufatuen abarkek maldan gora eta behera zapaltzen zituzten belar zurituen arteko fru-frukak.

Urigoitin antzerako zailtasunak zituzten. Bezperan erdi landutako soroek ez zuten ondorengo eguneko lan jarraipenik, soro hauei zegozkien laborariek ezin zutelako soroetarako biderik aurkitu: aitzurrak lepoan eta bazkari otartxoan besapean ateratzen ziren etxetik lanok bukatzeko, baina ai! orduak behar apenas etxetik bostehun metrora zegoen lur-saila aurkitzeko. Eta batzuetan, soroa aurkitu eta lanari ekin ondoren, herriko beste nekazariren bat hurbiltzen zitzairen burua astinduz: *“aizak Nicomedo, konturatu al*

haiz nire soroan ari haizela aitzurretan?“ edo *“aizu Jaxinto, konturatu al zara zure animalien satsaz Paulinoren soroa ongarritzen ari zarela?”*. Eztabaidak sortzen ziren halakoetan, noren aitzurra eta noren satsa, noren animalia eta noren soroa, eta Laino-Handiari egoera haietako irri mutueta malkoak igartzen zizkieten haraneko biztanleek, beharbada halakoetan Lainoaren hezetasunak gatz punttua ageri zuelako-edo.

Etxekoandreek arropak garbitzen zituzten beti bezala errekatxoaren ertzetan hartarako prestaturik zeuzkaten harrilaua zabaletan. Tuntu handiz ibili behar etxetik ibaitxora joateko eta noizbehinka, herriko kaleei bira bi baino gehiago eman zizkieten uraren norabidea aurkitu nahian. Ur barnean zen basoaren xuxurla jarraitzen zuten, baita harri tarteko bor-borak, eta korronte gaineko hosto erorien murmurioek dei egiten zieten herriko emakumeei. Arropa garbituak usadioz etxe osteetan esekitzen zituzten haizeak lehor zitzan, baina Laino-Handia iritsi zenetik jantziak beti zeuden umel eta hotz. Horregatik etxe barruan lehortu behar zituzten, umeak barre algaraka maindire handien azpitik pasatzen ziren eta nagusiak nonahi zeuden arrokekin estropezuka.

Batzuetan kalean solasaldian ari zirenen artean sartzen zen Laino-Handia. Solaskide bat goitik behera inguratzen zuen esne estalki estuagoa soinekotzat jarriz. Hala, pauso batera edo beso baten luzerara zegoen kideak bat-batean ez zuen ikusten norekin ari zen eta, aztoramenduz beterik, etxerako bideari ekiten zion dena ametsa ote zen galdezka, ia beti ibatxoarekin topo eginez eta kaleetan aldi eta pauso batzuk galdu ondoren ezaguna zuen egurrezko ate mardularekin kasualitatez-edo, talka egin arte.

Sua pizteko arazo larriak jaso zituzten biztanleek. Hain umela zen Laino-Handia, ze Izaki-Berria txapako sua pizteko egur txikituen bihotzeraino sartuta edo tximinietako sutean gorputz hoztuak berotzeko zituzten enbor moztuetan sarturik garraiatzen baitzuten oharkabe. Laino-Handiak epeltasun une haiek aprobetxatzen zituen egur puxketatik ateratzeko eta etxeko geletatik edo animalien ukuiluetatik pasealditxoren bat

egiteko. Iskanbilatsu ziren une haiek: umeak irrika eta ezkutaketara jolasean, nagusiek umeak aurkitu ezinik eta aiton-amonak oheratzeko ordua heldu zitzaielakoan afaria eskatzen zuten hortz eta hagin gabeko aho zimurtuekin. Zaila zen, zinez, Laino-Handia etxetik ateratzea: emakumeek eskuareak erabilia, palak, sardeak eta erratzak gizonen eskuetan eta kriseiluak umeenetan, kalaxe uxatzen zuten ongietorria ez zen Lainoa.

Laino-Handiak beste ezaugarri batzurekin apaindurik garatu zela esan beharra dago. Nabariena –ikusmena eragozteaz aparte– zera zen, entzumenari zegokiona: Izakiak doinuak desagertarazten ikasi zuen. Lehen asteak geroztik, haraneko biztanleak txori kantaririk ez zela entzuten ohartu ziren. Etxeko gurdi-gurpil kirrinkariak, bat-batean, heriotza bezain isilak bihurtu ziren. Animalien txio, kurrinka, balaka, arrantza, murru, bekeraka, zaunka, marmar, irrintzi, miauka, orro eta uluak, denak isildu ziren.

Hilabetea pasa baino lehen, kaleetan egiten ziren hitzak jelatuta bezala ahoetatik erortzen eta zoruan kraskaturik suertatzen zirela buru bakoitzak eskarmentu propioan ziur zezakeen. Instant horietako ezustea garaitu ondoren, soilik etxe-barneetan hitz egitea erabaki zuten auzokideek, oso ahopeka, nahiz eta erabaki hau onartzeko zeinuen bidez egin beharra izan zuten premiazko herri-bilera orokorra Larraldeko azoka esparruan, une garrantzitsuetako aspaldiko ohiturak eta manerak mantenduz.

Urigoitiko taberna bakarrean, arrastietan –arrastiak zirela uste zuten– eguneroko jarduerak aztertzen saiatzen ziren. “Argi zegok Laino-Handiak txantxak egitea gustoko dituala”, Nicanor Uriguen arginak esana. “Umea baino ez duk”, erantzun motza Antolin Larrea artzainarena. “Bai, amaren zaplasteko ederren baten faltan diagu gure Laino-Handia”, Pantxika Urionagereka maistra ohiaren taxuzko burutazioa. Tabernako hotsek belarrietan oso urruti zen itsasoko olatuen antzera jotzen zutela azaldu zuen Primitivo Larrondok, behin buhameek itsasoa nolakoa zen kontatu ziotenekoa gogoraturaz.

Nekazari, abeltzain, egurgile, ikazkin eta besteen artean ia egunero sortzen ziren

Lainoaren abenturei buruzko iritziak. Honako eta halako txantxak, bihurrikeriak, mal-tzurkeriak eta gaiztokeriak. Eta hortik tiraka, herriko tabernan jaio zen Izakiaren nortasunari buruzko gerorako finkaturik azalduko zen iritzi orokor ofiziala: *“Basa Askatasunean Oinarritutako Heziketa Unibertsala, egoera teorikotik praktikara eramana”*.

“Ba al zen Laino-Handiari zegokion Heziketa ezaugarri zehatzik? Plazaratu zitezkeen “Heziketa” ulertzeko teoriak kontutan hartuz, jakina, non “heziketa” giza kultura, pentsamendu, sinesmen edota legeriaren bitartez azal zitezkeen prozesu amaigabea zen. Ala komenigarriagoa litzateke teoria konduktibista eta heziketaren psikologia zutabe bezala antzematea? Ala –eta aipatutako Nicanor Uriguen temati zen puntu honetan– heziketaren soziologia oinarriztat hartuz, teoria funtzionalistak hobeki “definituko” –halakoxe hitza erabili zuen Nicanorrek, “definituko”– al zuen sujetaren barne izaera?”.

Gero, denbora luzeko eztabaida kulturalisten eta sagardo doratuzko hainbat pitxar dastatu ostean, tabernako solasaldi filosofikoak –oso ahopeka eta zeinuka– agortuak zirenean inoiz adostasun salomonikora iritsi gabe eta hitzak guztien ezpainetan lehortzen zirenean, adioak eta gau onak –gaua zela uste zuten gehienek– eskaintzeko ordua zelakoan, bakoitzak bere kaxa ahalegintzen zen etxe eta ohe propiorako bidea aurkitzen. Batzuk, sarri, errekatxoan oinak busti ondoren ailegatzten ziren etxeetako babesera.

HARANETIK at izan balira, biztanleek haizearen txistua lurrun-trenarenarekin nahasiko zuketean, baina trenik ez zen asmatu haran estu hartan ezta errepide zabalik ezta presaka aritzeko beharrik. Laino-Handiaren baitan denbora nagiago mugitzen zen, alferrago edo ez zen batere aurreratzen. Edo, egia esanik, atzeratzen ere, zeren eta haraneko biztanle arduratsu inork ezin baitzezakeen bereiztu gaurkoa eta atzokoa, goia eta behea, aurrea eta atzea, burbuila zurizkatuaren barnean kaiolaturik baleude bezala.

Denbora pasa ahala –denbora zela, halaxe otu zitzaaien guztiei–, gizonak izan ziren beste ezaugarri baten lehen igarleak: bizarra egiterakoan ileak gero eta ugariagoak zirela

nabarmendu zuten. Burusoilak zirenek oraingoan ile matazak zituzten lehen larru garbia zen tokietan. Eta ez hori soilik, gorputza gero eta iletsuagoa izan zuten. Emakumezkoengan, aurpegiarena salbu, mirari bera ikus zitekeela aitortu zioten –zeinuz– erretore jaunari edo Felipa Larrezabala haraneko emagileari, horretan bakoitzaren sinesmenak zirela medio. Emagileak –zientzia emakumea azken batean– ez zuen bat-bateko azalpen errazik emateko ausardiarik izan, Zientziak informazio sakona behar duelako taxuzko azalpenak argitzeko. Hori zelako Zientziaren helburua, gizakien Argi-Zutabea izatea.

Azken garaietan ez zela ia argirik haranean-eta, nekazari eta abeltzain ondraduak erretorearen mezuaren zain ziren. Honek, Salamancan eta Comillas-en ikasia eta behin Erroman Aita Santua ikustera joana, ondorengo teoria plazaratu zien auzokideei: “Laino-Handiak hotza eta hezetasuna ekarri dituenz gero, Jainkoak naturaren bitartez ilez estali ditu Bere Artaldeko gorputz izoztuak“. Beste inortxok ez zuenez inolako azalpen zehatz eta laburragorik, ontzat eman zuten erretore jaunarena eta buru baietzez onartutzat izan zuten haraneko *“Ileen Teoria Unibertsala, berotasun praktikorako baliabide baliotsuak“*. Harro eta pozik ziren denak, ez zen gauza makala hain jende umiliaren artean eta hain denbora gutxitan bi teoria unibertsal plazaratzea-eta.

Zenbat eta iletsuago, epelago sentitzen ziren eta arropak soberako oztopoak baino ez ziren jantzien barnean izerdika ari zirenentzat. Denborarekin biluzik bizi ziren ileen babespean basoetako animalien antzera. Eta arropa gabe izatea erosoagoa irudikatu zitzairen. “*Nola ez al gara lehenago saiatu?*“, galdetzen zioten zeinuka elkarri etxe barne eta kaleetan. Erretore jaunak zera erantzun zien fedegabedunei: “*Jaungoikoak Bere Momentua zaintzen du*“. Tabernako agoran zeinuka eztabaidatu eta onartu ondoren, Lehen Eranskin gisa atxiki zizkoten hitzok haraneko bigarren teoria unibertsalari: “*Momentum-aren garrantzia, zergatik itxaron behar eta itxaronaldiaren zergatia*“.

Zaila zen zerua non zegoen jakitea. Ez zegoen horizonterik, ez egunik ezta gaurik.

Egia esan giza jakintza galdu egin zuten inori ez zitzaiolako inporta. Nahikoa eta soberakoa zuten eguneroko lanekin arazo lar berriekin burua arduratzeko.

Eskarmentuan ere jakinduria aurki zitekeen. Herri edo basetxeetako familia batzuek, animaliak bildu eta gurdian etxeko altzariak jarriz haranetik irtetzeko saioak egin zituzten. Kriseiluak pizturik bideari ekin zioten, batzuk mendebalderantz eta beste batzuk ekialderantz, errekatxoaren paretik zen bide estuan pausoak emanez. Baina egun pareko ibilbidea jarraitu ondoren, beti heltzen ziren Urigoitira ekialderantz ateratakoak eta Larralde auzunera mendebalderantz zihoaztenak. Argi zegoen ezinezkoa zutela alde egiterik eta honako jakinduriaz jabetun, ez zieten alferrikako saiakera berriei ekin.

Buhameak huts egin gabe hurbiltzen ziren, etxeko ahaideek bisitaldiak burutzen zituzten bezala. Baina, gauza bitxia, mamuen antzera agertzen ziren laino geruzen artetik eta aurpegi beti alaietan ez zuten inoiz egoera hartako berezitasunik aipatu ere egiten. Aurretiaz oharturik baleude bezala, isilka eta irribarretsu herriko biztanleak agurtzen zituzten eta zeinuz galdetu nolako uztak ziren eta zenbat bildots jaio ote ziren eta seme nagusia ea ezkondu zen eta alaba txikiak ea amurrain isilak harrapatzen jarraitzen zuen. Jai egunak ziren haiek haraneko biztanleentzat, inork ezin zuela ziurtatu buhameen etorrera ohiko garaietan burutzen al zenik edo, denborak bere bide zirkularra galduta, buhameen joan-etorrietako egunak aldrebesturik suertatu ei zirenik.

Bisitariak, jakina haraneko bisitari bakar haiek, Laino-Handia geroztik ez ziren ageri koloreetako zintaz ezta pandero alaiak joz, ez. Baina zeinuka –Salustiano Uribarrena errementariak Brígida Larrabide alargunari galdetu zion bezala, “*eta hauek noiz ikasi dute gure hizkuntza isila?*”– ederki moldatzen ziren etxeetako sukalde-mahaien inguruan haraneko ilez beteriko biztanle biluziei mundu arrotz zabalean ziren harritzeko mirarien berriak azaltzen zizkietenean.

Bi edo hiru belaunaldi igaro ziren eta ezkutuko haraneko biztanleak mundutik

aparteko bizi zeramaten. Kanean elkar ulertzeko garatutako zeinuzko hizkuntza etxeetan ere erabiltzen zuten eta ume jaio berriek ohikotzat izan zuten isileko mintzaira hura. Haranean, noizbehinka, haizearen txistua entzuten zen eta bat-batean desagertzen zen. Jakina, haize gaztetxo ezjakinaren seinalea, ausardiaz edo zentzugabekeriaz haranera hurbildu zena eta azkenik Laino-Handiak irentsi zuenaren aztarna moztua.

MENDEAREN amaieran Gobernuko topografoek mapak gaurkotu behar zirela izan zuten buruan. Nazio garatuenean gauza bera egiten zutela-eta, ez ziren beraiek besteak baino gutxiago izango. Handik eta hemendik aritu ziren militar topografoak errepideak eta trenbideak, ibaien ibilbideak, herrien izenak eta probintzien mugak tinta koloredunez seinalatzen. Lana bukatu ondoren mapetan haran txiki bat azaldu zen paper zuriaren gainean tinta beltz eta hizki txikiz idatzirik: *“Haran ezezaguna”*. Gobernuko Kontseilariak mapa egin berriak Presidenteari erakutsi zizkieten eta honek, begirada zuhurrarekin –horregatik zen Presidente, ez zion ezerk ihes egiten-eta– haran txikia seinalatu zuen hatz erakuslea mapako hutsune zurutuan jarrita:

–Zer da hutsune hau? Gure Nazioak ez du hutsunerik!

Kontseilariak, izutua, hartu beharreko neurriak hartu zituzten akatsa zuzentzeko. Armadako Ingenieritzako VIII. Batailoiko ofizialei eman zizkieten agindu zehatzak: haran galdua berreskuratu behar zuten Nazioaren oinarriak kolokan zeudelako. Ezinezkoa zen nazio zulatua izatea, nazio osoa behar zen inguruko herrialdeen pareko. Eta halaxe oihukatu zen Gobernuko Presidentearen Jauregitik, Jauregiko Gela Nagusitik, Gela Nagusiko Eserlektetik, Eserlekuan eserita zen Presidente iraindu baten aho irekitik.

Mapak osotzeko manatu argiekin han joan zen, beraz, VIII. Batailoiko Ingenieritzako 3gn Konpainia. Ipar eta hegoaldetik ezinezkoa zuten haranera sartu, mendiak lar garaiak zirelako eta mendi-gainak hodeien artean galtzen zirelako –topografo batek zin egin zuen hogeita hamar urte lehenago, bera mutikoa zenean, mendi haiek ez zirela hain

garaiak izan, ordea—. Orduan, 3gn Konpainia bi azpitaldetan banandurik, errekatxoaren ibilbidea jarraituz ekialde eta mendebaldeko sarreretatik abiatuko zirela antolatu zuten. Azpitalde bakoitzak hamabost eguneko lana burutu beharko zuen eta bi asteko epean orain zeuden tokian bilduko ziren guztiak burututako lanez txosten osotua atontzeko.

Eta eguzkiaren lehen izpiekin VIII. Batailoiko Ingenieritzako 3gn Konpainiako lehen azpitaldeko ingeniari eta topografoek haranean barna sartu ziren hurrengo egunean. Laino-Handia aurkitu zuten hasierako pausoak eman bezain pronto eta hodei erraldoi hartan hamaikatxu milaka beste pauso eman ondoren, berriz ikusi zituzten atzean utzitako kanpalekuaren argiak (esan beharra dago, irakurleak zalantzarik izan ez dezan, Batailoi bereko 3gn Konpainiako bigarren azpitaldeak ere prozesu berari ekin ziola agindu zioten mendebaldeko sarreran). Ezer ulertu gabe, hurrengo egunetan jarduera bera izan zuten azpitalde biek. Sartu, itsasoan dagoen itsasontzia bezain galduak sentitu ibilbide luzeetan eta azkenik sarrerako puntu berberera iristen ziren.

VIII. Batailoiko Ingenieritzako 3gn Konpainiako azpitalde bietako ofizial harroek gerrian zeramatzaten ezpata zorrotzak atera eta zizti-zazta!, goitik beherako mozketak burutu zituzten Laino-Handiaren haragi ezako gorputz misterioetsuan ebakuntza handiak sortuz. Baina moztutako atalak zorura heldu baino lehen birruztartzen ziren inoiz zatituak, urratuak, pitzatuak, moztuak edo zarpailduak izan ez balira bezala.

Kapitainen besoak nekaturik zirenean, agintaritzako ofizialen ezpata izerdiz blaituak sargentuen eskuetan utzi zituzten. Eta sargentuen besoak izerditan suertatu zirenean soldadu xumeak arduratu ziren lanaz. Ezpatak ofizialei itzuliz, mosketoi eta fusiletako baioneta luzeak erabili zituzten. Baina, lar traketsak edo konbentzimendu gabeko pausoak ematen zituztelako-edo, ezin izan zuten biderik ireki edo ezer aurkitu.

–Zer demontre da hau? –galdetu zion oihuka mendebaldean zen kapitainak.

–Halakorik ez dut sekula ikusi –ekialdeko tenienteak azpitaldeko kapitainari zu-

zendu zizkion hitz umelak, Laino-Handiak zuen hezetasuna bera hitzotan itsatsita.

Hamalau saiakera egin zituen azpitalde bakoitzak, hamalau aldiz bide zirkularrean bezala atera ziren. Jasotako agindua ezinezkotzat erabakiz, azpitalde biak bildu ziren adostatutako tokian. Ofizial ez hain harroek zera proposatu zuten: Presidenteak mapa osotua nahi baldin bazuen, hala izan bedi. Errekatxoa margotu zuten tinta berdez, etxe sakabanatu batzuk tinta beltzez eta "*Haran ezaguna*" idatzi zuten. Gobernuko Jauregira itzuli ziren txosten osoa aurkezteko asmoz: mendien kalitateak eta basoetako zuhaitzenborren loditasunen neurriak azaltzen zituzten, honako eta halakoak ziren etxoletako sabaietako aldapak deskribatzen ziren, baita artaldeek kopuruak eta errekatxoetan ziren hosto erorien zenbaketa zehatzak. Haraneko biztanleei buruz, ordea, ezer.

Presidenteak pozik zen, orain bai harro, orain Nazio Osoaren presidentea zelako. Dominak kapitain eta tenienteen galazko uniformeetan itsasten zituen unean Laino-Handia lotaldi lar luzean egon denaren nagikeriaz luzatu zen eta burua gora eta behera astinduz bat-bateko aharrausiaz desagertu zen. Ortziazen sabaiaren haran guztiko zokoetan sarturik zen mamu antzerako maindire hedatua bildu zen eta aiene apenas entzuna utziz airearen gardentasunean, begiraden zorrotasunak lekuko izan arren, ezin zitekeen egiazat hartu ipar ala hegoaldeko mendi biluztuen gainetik abiatu zenik, sabairatu ala lurperatu zenik, txikituz desagertu ala handituz desegin zenik.

Errekatxoaren gainean utzitako espazioak gauza berrien argitasunaz ageri ziren. Larre gristuetan belarren lehen berdetasun apalak azaldu ziren ardiaren artilezko beroki zurien azpian. Haraneko biztanleek betiko lanetan ziharduten. Ilez beteriko haragiak eguzki argipean behatzen eman zituzten ondorengo egunak eta ohi bezala, keinukari jarraitu zuten inguruetako hotsak eta doinuak zein berriak ziren elkarri seinalatuz.

Eta zeruan pasatzen ari ziren hodei nomadek, buhameak zirelakoan, ez zituzten mundu estu edo zabalaren inguruan egin beharreko biraketak gelditu.